

ezagutzen al duzu Donostia?

Bernategi

Bernategi baserria, -Bernategi Haundi deiturikoa zehazkiago- Urumea ibaiaren ezker aldeko ugaldetan\* dago. Ibaian beheara, Amara Behea ezker aldean eta Altzako Sarrueta auzoa eskuin aldean ditugularik (gaur Martutene toponimo nagusiarekin ezagutzen dugu inguru guzti hau), Loiola auzo zaharrean sartzen gara. Bernategi da, hain zuzen ere, auzo honetako aurreneko baserria. Inguruko beste baserri-etxe guztiek bezala, bazuen honek ere bere alagunea\*\* edo portua.

Donostiarra den ibai handi honen ibarrean kokatzen den ederrenetakoa da XVIII. mendean eraiki zen etxe haundi hau. Gaur ere ageri ditu harlanduz egindako horma-ertzak eta gisa bereko harri-kordioak.



«Bernategi Haundi» baserri haundi eta hutsa, iragandako hurbileko denbora baten lekukoa.

Etxea hutsa, eta bizilagunik gabe aurkitu arren, oraindik hurbila baina betiko iragana den denbora batean, baratz aberats eta emankor batek inguratzen zuen Bernategi. Gaur aldiz, baratz eder haiek guztiak ia galdu dira eta inguru penatu honetan hainbat etxe eta industri-

pabiloi daude, zehazki Bernategi Haundi eta auzokoa zen Bernategi Txiki desagerturiko baserrien lur eta baratzetan «Prisión Provincial de Martutene» deituriko erakuntza triste egin zelarik.

\*«Ugaldea»: Gipuzkoako Beterrian eta zehazki Lasarte, Zubieta eta Usur-

bilen Oria ibaiaren hurbileko lurrei deitzen zaie. Urumearen ibarrean, aldiz, «ibai-ertza» deitura ezagunagoa da inguru berdina izendatzeko.

\*\*«Alagunea»: Ibaietan kabarra edo txalupak lotzen diren untziralekua.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: JOSU TELLABIDE

KANTU LIBURUSKA

Zure afari, bazkari, bidaia eta lagun giroetan lagunduko dizun liburuxka praktikoa

100 pezeta bakarrik balio du!!



Zatoz BAGERAren bulegora (Tfnoa.: 431228)